

Balorezko proposamena (Baserri eskola):

Gaur egun, haurrak hezkuntza arloan jasotzen duten hezkuntza aztertu egin dugu. Gure esperientziatik abiatuta, haur bakoitza bere ikasketa prozesuaren protagonista izateko aukera ez duela esan dezakegu. Beraz, gaur egungo haurrenganako dugun hezkuntza kontzeptuari buelta bat eman behar diogu.

Aldaketa honen eredu nagusi bilakatu dira urteetan zehar Pikler eta Montessori metodologiak. Hauek izango dira gure etxeko oinarritzko ideia. Metodologia hauek gero eta haur eskola gehiagotan erabiltzen hasi dira baina etxeetan ez daude hain baneratuak. Hau aldaketa lez aztertu dezakegu, hain bereizgarriak diren eta hainbestelako erabilera eman ditzakegu, non gure baserri eskolan erabiliko ditugun metodologia, ekintza edota edozein jarrera, ezagutza bihur daiteke etxeetan; hau da, baserri eskolaren bidez ohiturak hartzea lor dezakegu hobekuntza bilakatzuz.

Pikler metodoak berretsi egiten du haurrari askatasunez jarduten uzteak, beharrezko baliabideak eta espazioak erraztuz, haurrak autonomia handiagoa lortzea eta jarrera-mugikortasun handiagoa garatzea eragingo duela, bakarrik esertzen eta ibiltzen ikastera iritsiz, laguntzarik behar izan gabe eta helduak horretara bultzatu beharrik izan gabe.

Metodologia honetan, helduaren paperak ere garrantzi handia duela esan daiteke. Helduak rol desberdina hartu behar du haurrarekin duen harremanean, eta haren jarduna zuzeneko behaketan, hitzezko komunikazioan, afektuan eta zeharkako estimulazioan lagunduko du. Helduak haurraren mugimenduetan esku hartzea kaltegarria izan daiteke haurraren garapen autonomorako. Hori dela eta, haurra ez da presaka sartu behar, pazientziaz jokatu behar da, eta jarduteko modu berri hori bide nagusira eraman behar da haurra aske senti dadin, eta helduarekin lotura bat sortzen hasi behar da, modu horretan, modu espontaneoan jardun ahal izateko.

Beste alde batetik, Montessori hezkuntzak haurra modu integralean prestatu nahi du: hazkunde fisikoa, soziala, emozionala eta kognitiboa. Haurrari ikastun independente izaten laguntzeaz gain, irakasleak taldeko parte-hartzea, lankidetzak eta besteen duintasunarekiko errespetua sustatu behar ditu. Pertsonak aukera gehiago izan ditzakegu ikasteko zuzeneko harremana, praktika eta aurkikuntzak biziz, jarraibideak jarraituz baino.

Horregatik, gure baserri eskola haurrak behar duten esperimentazio lekua bihurtzen da eta hezkuntza kontzeptu horri buelta bat emateko aukera eskaintzen die bezeroei.

Baseri eskolan, hezkuntza hurrengo eran ikusten dugu: "Hezkuntza ez da jada eginda dauden gauzak eskaintzea edo erantzun egokiak ematea. Ikasitakoa beren erabakien eta akatsen protagonista izan daitezen erakutsi nahi zaie. Horrela, beren nortasuna eta gaitasun fisiko eta intelektualak eraiki eta garatuko dituzte." Gainera, gure ustez, haurtzaroan hezkuntzak duen garrantzia funtsezkoa da pertsonen garapenerako, bizitzaren garai horretan finkatzen baitira pertsonaren etorkizuneko garapenerako oinarriak.

Bertako inguruneak ere lanketa honetan lagunduko du eta naturarekiko harremana indartzeko aukera emango die haurrei eta haien familiei.

Hezkuntza ideia horrekin aurrera jarraitu ahal izateko, hainbat baliabide mota desberdin erabili egingo ditugu. Hasteko, gure baseri eskolak eskaintzen dituen inguruaz baliatuko gara eta adin desberdinetako haurrei ekintza desberdinen bitartez, haien hezkuntza prozesua garatuko dugu. Adibidez; ortuarekin zerikusia duen ekintza desberdinak. Haurrak aukera izango du, inguruneak ematen dituen materialak aztertu edota manipulatzeko. Horrez gain, espezializatutako hainbat hezitzaile egongo dira, haurraren garapen prozesu horretarako beharrezkoak diren baliabideak eskaintzeko. Azken batean, deskubrimendu bidezko ikaskuntzaren bidez, haurrak gai dira beren zailtasunez eta trebetasunez jabetzeko, baita lan zehatz batek dakarren konplexutasunaz jabetzeko ere.

Prezioen aldetik, nahiz eta prezio finko batzuk izan, eskola honetara etortzen diren familien egoera desberdinetara egokitzen saiatzen gara. Azken batean, hezkuntza haurren eskubide bat bezala ikusten dugulako eta ez negozio bat izango balitz bezala. Haurren hezkuntza da garrantzitsuena, haientzako eta denon etorkizunerako, haurrak dira etorkizuna eta haien ezagutzak eta gaitasunak ez badira hobetu edo garatzen, arazo handia izan liteke nagusiagoak direnerako. Gizartea eraldatu ahal izateko, garrantzitsua da etorkizuna beteko duten pertsonak behar bezala garatzea.